

# I. eranskina

## GRADU AMAIERAKO LANA

### EDUKIA ETA AURKEZTEKO ARAUAK

*2023/ 12/ 12ko Eskola Batzordean aldatua*

#### 1 EDUKIA

Arkitektura objektuan eragina duten arazo anitzei erantzuna emango diendefinizio orokor eta integratua.

##### 1.1 Memoria

Justifikazio kontzeptuala eta funtzionala, hirigintzakoa eta teknikoa. Honako atal hauek zehaztu beharko dira:

- Esku hartze mota (oin berria, birgaitzea edo berritzea, handitzea) eta proiektuaren izenburua. Ikaslearen eta zuzendariaren eta/edo tutorearen datuak.
- Kokapena: geografikoa eta hirikoa. Proposamenean eragin zuzenaduten alderdien azalpen historiko laburra.
- Hasierako datuak: orube eta/edo lursailaren aurretiko topografia. Altimetria kotak. Lekuaren eta dauden eraikinen azalpena.
- Aplikatu beharreko hirigintza araudia. Indarrean dagoen hirigintza araudian aldaketaren bat behar izanez gero, plangintzaren idazketa eta/edo aldaketa egiteko metodologia adierazi.
- Proiektuaren esku hartzea finkatzen duten oinarri teorikoak.
- Proiektuaren arkitektura deskribapena. Oinarrizko alderdiak. Programaren oinarrizko ezaugarriak eta horien kuantifikazioa:
  - Eraikin mota edo forma antolaketa.
  - Oinarrizko eskema funtzionala eta banaketa.
  - Birgaitze kasuetan, argi adierazi eraispenak eta proiektuan mantendu eta/edo integratu beharreko zatiak.
- Proiektuaren deskribapen teknikoa. Funtsezko alderdiak:
  - Eraikuntza: eraikuntza ebazpenen eta proiekturako aukeratutako materialen deskribapena, proiektu ebazpenarekin loturik arrazoitua.
  - Egitura: eraikuntza ebazpenen eta proiekturako aukeratutako egitura ebazpen desberdinen (zimenduak eta egitura orokorra) deskribapena, proiektu ebazpenarekin loturik arrazoitua.
  - Instalazioak: proiekturako aukeratutako instalazioen deskribapena, proiektu ebazpenarekin loturik arrazoitua.

## 1.2 Planoak

- Eremuaren egoera, proiektua baino lehen:
  - Egungo egoeraren planoak.
  - Aurretik badiren arkitektura elementuen oinak, altxaerak eta ebaketak.
- Eremuaren egoera, proposamenaren ondoren.
- Kokalekua.
- Proposamenaren oinak, altxaerak eta ebaketak 1:100 eskalan. Proiektuaren tamainak multzoa irudikatzeko eskala handiagoakeskatzen baditu, 1:100 eskalan egindako oin, altxaera eta ebaketen zatikako planoak ere aurkeztuko dira.
- Xehetasunezgaratu beharreko eremuaren eraikuntza ebaketa bereizgarriak. 1:20/50 eskala.
- Instalazioen eskemak.
- Egitura diseinuaren eskemak.
- Ikuspegiak.

## 1.3 Maketa

Proiektuaren bolumena eta ezaugarri adierazgarrienak azaltzen dituen kontzeptu maketa.

## 2 AURKEZTEKO ARAUAK

### 2.1 Memoria

Din A3 formatuko koadernoak, memoriarekin, dokumentu tekniko osagarriekin eta planoen kopia txikiagotuarekin.

### 2.2 Planoak

Proiektua behar bezala ulertzeko eskala egokiak erabiltzeko, planoak DinA3 formatuan aurkeztuko dira, koadernatuta, eta Din A0 formatu bertikala erabiliko da proiektuaren sintesi-panel bertikal bat osatzeko.

### 2.3 Maketa

Din A2 tamainakoa gehienez.

### 2.4 Kopia digitala

Ikasleak, defentsa gainditu ondoren, proiektuaren dokumentazioa (planoak, memoria eta agiri tekniko osagarriak) entregatuko du euskarri digitalean.

Defentsa bost puntu edo gehiagorekin gainditzen duten lanak Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitalean (ADDI) sartuko dira edonork kontsultatu ahal izateko, egileak horretarako baimena eman ondoren.